

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

## Nortasun galduak

**P**irinioetara bidean noala Burgi herrian egin dut geldialdia ogia erosteko. Denda ondoko atarian agure bat dago eserita, errepi-deari begira. Okindegitik aterata, agurtu egin nau, eta eguraldiaz galdetu. Berba egiteko gogoa dauka, eta minutu batzuetan bada ere, eutsi egin diot hizketaldiari, gustura asko gainera.

Udan, eguraldi onarekin, etxeko atarian eserita pasatzen ditu orduak, kotxeen joan-etorria ikusten. Bidaiari gutxi gelditzen dira herrian, baina oporretako trafiko biziak entretenimendu handia eskaintzen dio. Nafarroako Pirinioetako izkina honetan ez dago denbora-pasarako aukera askorik, are gutxiago tabernako kartajokoa atsegin ez duen 82 urteko agurearentzat.

Atsekabetuta dago gizona, triste. Kotxeen matrikulak aldatu zituztenetik, akabo udako entretenimendua. Lehen, agurea adi-adi egoten zen kotxeak nongoak ziren ikusten. Bi orduko jarrialdiaren ostean, bere ikerketa partikularren emaitzak jakinarazten zituen: “Gaur gipuzkoar-rak nagusi, hamalau kotxe Donostiako matrikularekin, zortzi Bilbokoarekin, lau Madrilekoak, eta hiru Bartzelonakoak”. Leku gutxitan azterketa turistiko errealagorik. Kale-kalean egindako ikerketen berri ematen imajinatzen dut gizona: “Aurten katalanak asko, inoiz baino gehiago, Madrilekoak ere ugari, baina gehien, beti bezala, gipuzkoarrek eta bizkaitarrak”.

Pikutara joan dira, ordea, horiek guztiak. Kotxe gehienek matrikula anonimoak dituzte orain, eta Burgiko agurearentzat metalezko trastuak besterik ez dira, arimarik gabeko gailu erroberadunak. Fantasmak balira bezala pasa-



Kotxe gehienek  
matrikula anonimoak  
dituzte orain,  
eta Burgiko  
agurearentzat  
metalezko trastuak  
besterik ez dira,  
arimarik gabeko  
gailu erroberadunak



tzen dira herritik, nongoak diren jakinarazi gabe. Jota dago aitona, gaur egungo erabaki “modernoak” gero eta ulergaitzagoak egiten zaizkiola esan dit. Kotxei identifikazioa kenduta, mundua leku desatseginagoa da beretzat. Kotxe guztiak berdinarak dira, eta Burgiko atariko uda epela hoztu egin da.

Agureari bostekoa eman, agurtu eta bideari berrekin diot entzundakoaz pentsatzen. Nirea ere “arimarik” gabeko autoa da, eta hala nahia-go. Berria erosi nuenetik, bidaiari anonimoa naiz. Ez diet pistarik ematen beste gidariei, ez Palentziako erdigunean aparkatzen dudanean, ezta Nafarroako basoetara perretxikotara banoa ere.

Gustatzen zait anonimotasuna, nortasun erreferentziarik ez erakustea, begi-bistakorik behintzat. Kanean kamuflatzea ezinezkoa denez, ezezagunen artean egonda ere inor ez denez sailkapen eta aurre-iritzietatik libratzen, askatasun eremu txikia topatzen dut nire kotxe gris, arrunt eta anonimoan.

Emozionatu egin naiz Burgiko agureari entzuten, ulertzekoa da bere atsekabea. Nik neuk ere nire burua ikusi dut 30 urte barru gazteei kontatzen lehen bazirela probintziako banatutako matrikulak, eta haiek bai zirela politikak, eta umetan geografia ikasten genuela CS edo BA nongoak ziren asmatzen, eta bozina jotzen genuela gutako bat Tarragonan ikusiz gero.

Baina bolante aurrean eserita, segituan desegin dira ideia horiek. Hor kanpoan, mundua leku gogorra da, eta nik nahiago dut kotxe barruan goxo-goxo egon. ■

## TXANDAN

Igor Estankona



Edo beste Amerika. Amerikak bihozbera bezain erreala baita, zoritxarrez, aurka gauzkan Amerika.

Walt Witmanek Brooklyngo *Eaglean* zioen Amerikak bazekiela zapaltzen eta oinperatzen, eta bere mugak baino harago hedatzen. Baina beste askok ez zuen halako etorkizunik nahi lurralde zahar eta era berean berde harentzat. 1846ko udan Henry David Thoreauk uko egin zion zergak ordaintzeari. Diru harekin ari ziren zabaltzen Estatu Batuak Mexikorantz:

## Benetako Amerika (I)

ditu inoiz gizonak justuago egin, eta injustizien ordezkarri bihurtzen dira borondate honekoak ere legearenganako errespetuak eroanda. Legeari zaion okerreko errespetuaren ondorio ezagun eta naturala dela eta soldaduak ikus zentzake... orden perfektuan landa zabaletatik desfilatzen gerrara bidean, euren borondatearen kontra, bai, euren kontzientzia eta sen onaren kontra, eta ondorioz astun egiten zaie martxa, eta bihotzak dar-dar egiten die”. ■

“Ez da komeni legearenganako errespetua lantzea, ezpada zuzenbidearenganako errespetua... Legeak ez